



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2016ko azaroaren 16an, 16:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

A.S.C. jauna zenbait obra egiten ari zen *Mindegikobordako* kanpo aldean (2 poligonoko 62 parztela), beharrezkoa den lizentziarik gabe: obrak pareta batean eta losak jartzea. 2016ko urriaren 28ko 2016/93 zenbakiko Alkatearen Ebazpenean erabaki zen, S. jaunari errekeritzea obrak bertan behera uztea berehala eta obra haiek deskribatzen zituzten agiriak aurkeztea Zubietako Udaletxean 10 eguneko epean, Udalak egiaztatu ahal izateko obra edo erabilerak indarra duen antolamenduarekin erabat edo partzialki bateraezinak edo bateragarriak diren.

Lizentzia eskaera aurkeztu zuen S. jaunak, 2016ko azaroaren 7an, losa jartzeko bordako sarreran, harria jartzeko paretaren zati batean eta beste zatia luzitu eta pintatzeko. Aurkeztutako aurrekontua, berriz, 80 eurokoa izan zen.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Espediente zigortzaileari hasiera ematea Alkatearen Ebazpenaren bitartez, egindako obrak lizentzia behar zutelako aurretik.

2. Sustatzaileari jakinaraztea pareta ezin dela luzitu eta pintatu, arautegia betetzeko, harrizkoa behar duela izan.

3. Aurkeztutako aurrekontua ez onartzea, ez duelako erreala ematen. 15 eguneko epean aurkeztu beharko du obraren benetako kostua. Ez bada kostu egokia aurkezten, arkitekto aholkulariei eskatuko zaie balorazioa eta txostenaren kostua S. jaunak ordaindu beharko du. Bitartean, ez zaio obra egiteko lizentziarik emango.

3. BULEGOEN GARBIKETA.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Udalak dituen bulegoen garbiketa-kontratoa, prozedura irekiaren bidez esleitzeko (adjudikatzeko) baldintzak arautzen dituen baldintza plegua onetsi dute aho batez. Kontratua, laguntza kontratua izango da; 6/2006 Foru Legeak, ekainaren 9koa, Kontratu publikoei buruzkoa, II. eranskinean aipatzen ditu “eraikinak garbitzeko zerbitzuak”.

Hasierako prezioa, 1400 eurokoa izango da urteko.

4. MOZIOAK.

“GENERO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK” kanpainari atxikimendua erakusteko, aho batez onetsi da aldarrikapen hau:

“HERRITARGO KONPROMETITU BATEN ALDE,
EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRA.

Azaroaren 25ak balantze egiteko eguna izan nahi du, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egiteke geratzen diren pausoei, erronkei eta hobekuntzei buruzkoa. Horrez gain, bizirik irtetea lortu duten emakumeei omenaldia egiteko eta eraildako emakumeak oroitarazteko eguna ere izan nahi du. Egun honetan errealitate hori ikusarazi nahi da eta gizartea kontzientziatu eta sentsibilizatu.

Emakumeen aurkako indarkeria fenomeno estrukturala da, gure gizartean dauden maila sozial guzti guztietan, herrialde eta munduko leku guztietan eta urteko egun guztietan ematen dena. Indarkeria mota honen biktimak emakumeak eta neskatok dira, emakume eta neska izate hutsagatik, diskriminatuak eta behartuak dira euren bizitzetako esparru eta une guztietan.

“Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak” ezartzen duen bezala, emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa ondorengoa da: “emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da”. Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa ez da emakumeen arazo bat, gizarte osoaren arazo bat baino, eta, horregatik, gizarteak bere osotasunean erantzun behar du. Azken urteotan aurrerapenak eman dira arau-mailan, zein hezkuntzako eta indarkeria aurrezaintzeko programak ikastetxeetan inplementatzen edota gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak planifikatzen besteak beste. Eraitza positiboak lortu ere dira gizarteak eta erakundeek erantzun mailan, esaterako, Nafarroako herritarrek San Ferminetan erakutsitakoa, era eraginkorrean agertuz eta gaitzespena erakutsiz festetan zehar gertatutako sexu-erasoen aurrean eta argi utziz jarrera mota horiek ez direla onartzen eta ez dutela sortzen, ezta laguntzen ere, gizarte demokratikoa eta berdintasunezkoa lortzeko bidean.

Gaur egun gertatzen diren beste errealitate batzuk oroitarazten digute gatazkan dauden herrietako emakumeek bizi duten indarkeria, eta Europako immigrazio politiken



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)
31746

aurrean herri plataforma zein gizarte mugimenduetatik beren ezinegona adierazteko antolatzen diren ekintza eta ematen diren erantzunek egoera hauek guztiak salatu nahi dituzte: pertsonen salerosketa, emakume eta nesken aurkako erasoak eta bortxaketak, giza eskubideen urraketak.

Hori guztia dela eta, era kolektiboan, Zubietako Udalak, honakoa ADIERAZTEN DU:

GURE GAITZESPENA indarkeria sexistari: agerian dagoenari nahiz ikusten ez denari, eta haren adierazpen guztiei, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren emaitza direnak.

GURE KONPROMISOA Herri Erakunde gisa, era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko, indarkeria-haztegia direlako, baita gure konpromisoa emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean erantzutetako ere, berdintasuna politika guztien ardatza izanen den legegintzaldi batean.

GURE ELKARTASUNA edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiekin baita muturreko indarkeria sexistaren biktima izan direnekin ere. Gure babes osoa beraiendako eta beren familiendako.

ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATZEN DITUGU, emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrera erakusten jarraitzeko, banakoarena nahiz taldekoarena, indarkeria mota hori errotik kentzeko. Baita emakumeen bizitzan ematen diren indarkeria mota guztiak eta kontrol patriarkalaren adierazpen guztiak salatuz. Eta, azkenik, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren jardueretan parte hartuz animatu nahi ditugu.

Horrela, guztiok batera aurrera jarraituko dugu, geroz eta jasangarriagoa, demokratikoagoa, bidezkoagoa eta berdina izanen den gizartea baten bidean.”

5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016/77 zenbakia, 2016ko irailaren 16koa, F.M.ri lizentzia eman ziona, *Mitxelenea* etxeko fatxadak pintatzeko.

- 2016/78 zenbakia, 2016ko irailaren 16koa, I.J.ri lizentzia eman ziona, *Luiseneko* arribordako teilatua konpontzeko.

- 2016/79 zenbakia, 2016ko irailaren 16koa, J.L.L.ri lizentzia eman ziona, *Seroineako* atarian trabatu den saneamenduko tuta konpontzeko.

- 2016/80 zenbakia, 2016ko urriaren 5koa, T.O.ri lizentzia eman ziona, *Txapado berri* baserriko atarian porlana botatzeko eta 7 metro luzaerako pareta eraikitzeko.

- 2016/81 zenbakia, 2016ko urriaren 5koa, G.M.ri lizentzia eman ziona, *Mutilbono* parajea, 1 poligonoko 3, 4, 5 eta 2 poligonoko 428 partzelen inguruan pikete eta alanbreko itxitura jartzeko.

- 2016/82 zenbakia, 2016ko urriaren 5koa, I.J.ri lizentzia eman ziona, atea irekitzeko *Luisenea* etxeko garajea.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2016/83 zenbakia, 2016ko urriaren 5ekoa, J.A.i baimena eman ziona zumba ikastaroa emateko eskolan.

- 2016/84 zenbakia, 2016ko urriaren 5ekoa, P.S.ek aurkeztutako errekurtsioa ukatu zuena.

- 2016/85 zenbakia, 2016ko urriaren 24koa, *Olazar*, *Oritz*a eta *Azkota* parajeetan oihan-aprobetxamenduak ateratzeko, P.S.ek ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.

- 2016/86 zenbakia, 2016ko urriaren 24koa, *Errigibel* parajeetan oihan-aprobetxamendua ateratzeko, F.E.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.

- 2016/87 zenbakia, 2016ko urriaren 24koa, P.S.i baimena eman ziona, *Arrotzubiko bidean* botatzeko errepidetik erretiratutako galipota, zuloak tapatzeko.

- 2016/88 zenbakia, 2016ko urriaren 24koa, I.J.ri lizentzia eman ziona, *Luisenea* etxeko garajeko teilategala luzatzeko atearen parean.

- 2016/89 zenbakia, 2016ko urriaren 28koa, P.S.i lizentzia eman ziona, 2 poligonoko 292 partzelako arribordako teilatua 20 zentimetro altxatu eta konpontzeko, eta sotoan hormigoia botatzeko.

- 2016/90 zenbakia, 2016ko urriaren 28koa, J.R.O.ri lizentzia eman ziona, *Martindenea* etxeko teilatua konpontzeko eta teilatu-hodiak aldatzeko.

- 2016/91 zenbakia, 2016ko urriaren 28koa, L.S.i lizentzia eman ziona, *Olanoa* etxeko sotoko zati batean porlana botatzeko.

- 2016/92 zenbakia, 2016ko urriaren 28koa, A.E.ri lizentzia eman ziona, *Petrixeneko Erdikoborda* erreteilatzeko.

- 2016/93 zenbakia, 2016ko urriaren 28koa, A.S.ri agindu ziona, *Mindegikobordan* egiten ari zen obrak bertan behera uzteko.

- 2016/94 zenbakia, 2016ko azaroaren 8koa, Nafarroako Gobernu Ingurune Naturalaren Zerbitzuari baimena eman ziona, sasiak kentzeko lanak egiteko *Garaxingo borda* eta *Lotzabala* parajeetan.

- 2016/95 zenbakia, 2016ko azaroaren 9koa, A.M.M.ri lizentzia eman ziona, *Etxekeneko arribordako* lurrian hormigoia botatzeko (4 poligonoko 1055 partzela).

- 2016/96 zenbakia, 2016ko azaroaren 9koa, M.J.ri lizentzia eman ziona, *Penta* etxeko garajeko, terrazako eta txabolako teilatuak konpontzeko.

- 2016/97 zenbakia, 2016ko azaroaren 9koa, J.I.P.i lizentzia eman ziona, *Ibarrenea 2. ezkerre* etxebizitzako komuna eraberritzeko.

- 2016/98 zenbakia, 2016ko azaroaren 14koa, *Borralda* parajeetan oihan-aprobetxamendua ateratzeko, I.G.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.

- 2016/99 zenbakia, 2016ko azaroaren 14koa, M.E.ri baimena eman ziona, atautxi-amatxien txokoa antolatzekeo eskolan.

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Buruhaundien tailerra antolatzea proposatu zuten A.Z. eta I.G.k. Taldea osatuz gero, Udalaren erantzuna baiezkua izango litzateke, baina zenbait xehetasun argitu beharra dago aurretik.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)
31746

2. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko irailaren 29an emandako Ebazpena, baso-aprobetxamendua egiteko baimena eman ziona F.E.ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko irailaren 29an emandako Ebazpena, baso-aprobetxamendua egiteko baimena eman ziona S.O.ri; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko irailaren 29an emandako Ebazpena, obrak egiteko baimena eman ziona M.J.B.ri, ura eramateko Bizarrenekobordara; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko irailaren 29an emandako Ebazpena, erreka garbitzeko baimena eman ziona Udalari; Euskarabideak emandako diru-laguntza euskara erabiltzeko eta sustatzeko; parkeko zoladura aldatzeko eskatu den diru-laguntza; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera — M.E.I.rena—; Nafarroako Gobernura bidali diren baimen eskaerak landaketak egiteko —F.E. eta L.M.—; Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena —T.O.ri—.

3. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Uraren ibilbidean hobekuntzak egiteko diru-laguntza eskatu behar da. Errotako teilatuan, kisu-labeetan eta inguruan konponketak egiteko ere.
- Osasun Kontseilua osatu egin zen eta, beste batzuen artean, gai hauek aztertu ziren: desfibriladoreak eta helikopteroak lurreratzeko guneak.
- Bilera egin zen Iruñean lanbide eskolari buruz.
- Prebentzio batzordea ere bildu egin zen, ekintzak antolatzeko azaroaren 25erako.
- Zaborren Batzordea: konpost kanpaina.
- Sutarako egur-loteak eskatzeko epea irekiko da.

Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aitortuz, Nafarroako Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legeko 325. artikulua xedatutakoa kontutan hartuz, aho batez (arauzko quoruma) erabaki da:

1. Hasiera batean onestea hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen ordenantzako 6. artikulua aldaketa. Hau da onetsitako testua:

”6. artikulua. Hirigintzako aholkularitzaren txostenak eta prentsan argitaratzen diren iragarkiak zer kostu duten, horrenbertze izanen dira aplikatu beharreko tarifak, tasak eta karga-tasak, ordenantzaren 3. artikuluan aipatzen diren hirigintzako jarduketari dagokienez.

Txostenik ez dagoen kasuetan, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioa 5 eurotara ailegatzen ez bada, tasak zenbateko hau izango du: 5 euro ken zergaren zenbatekoa.

Alkatetzak egingen du tasen behin betiko likidazioa.”

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, 30 laneguneko epean jendaurrean egoteko.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. Aditzera ematea erabaki hau behin betikoa bilakatuko dela jendaurrean egon bizkitartean inork ez badu alegaziorik aurkezten.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 17:30 direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.